


1482an girotutako elaberriaren kapituluan, bi pertsonaia nagusiek, munstroki itxuragabetutako Quasimodok eta Esmeralda arloteak, aurrez-aurre egiten dute topo. Quasimodo urkabela eraman dute, Djali bere ahuntzarekin plaza eta kaleetan dantza egiten duen eta dirudienez ijitoa den Esmeralda gaztea eramaten saiatzeagatik xahutua izan ondoren. Jende multzoa Quasimodoren kontrakoa da. Hori, antzezpenaren parte da.

1831



“Parisko Andre Maria”-ren liburukiaren lehenengo atala, Gosselinaren argitalpen orijinala, 1831. Tony Johannoten binetak. MVH©AKG Paris

“Zenbait minuturen buruan, Quasimodok etsirik behatu zion jende osteari, eta are lazgarriagoa zen ahotsaz berritu zuen:

—Ura!

Eta denek algara.

—Edan ezak hauxe! —egin zuen oihu Robin Poussepain-ek karrikako errekan pasatako esponja bat aurpegira jaurtiz—. Horra, gor arraioa, zor nian.

Emakumezko batek harrika eman zion buruan:

—Horrek irakatsiko dik gauean gu ez esnatzen hire ezkilarekin.

—To! —zakarki elbarri batek, bere makuluarekin jo nahirik— oraindik ere araoak bota behar al dizkiguk Notre-Dameko dorre gainetik?

—Hartzak gopor hau edateko!— gaineratu zuen gizon batek, pitxar hautsi bat bularrera jaurtizten ziola—. Hi izan haiz, haren aitzinean pasatze hutsarekin, bi buruko haurra ekarrarazi diona nire emazteari!

—Eta nire katuari sei hankako umea! —egin zuen marmar atso batek, teila bat botata.

—Ura! —errepikatu zuen hirugarrenez Quasimodok hatsanturik.

Orduan, samalda hura baztertu egiten zela ikusi zuen. Era bitxian jantzia zen neska bat sortu zen jendetzatik. Urre koloreko adarrak zituen ahuntz ttipi xuria zekarren lagun, eta euskaldunen danborra eskuan.

Distira egin zuen Quasimodoren begiak. Aurreko gauean bahitu nahi izan zuen buhamea zen, eta bihurrikeria hura ordainarazten ziotela ulertu zuen nola edo hala; baina ez zen horrelakorik inolaz ere, zoritxarrez gorra zelako eta gor batek epaitu zuelako baitzuten zigortzen, ez beste ezergatik. Hura ere mendeku hartzera zetorren, zer duda egin, bere jipoia ematera besteek bezalaxe. Ikusi zuen arineketan igotzen zituela eskailerak. Ito egin behar zuen amorruez eta despitez. Nahiago zukeen pikota jota bota ahal izan balu, eta begiaren distiraz tximista jaurti ahal izan balu buhamea erraustua egonen zatekeen oholtzara heldu aitzin.

Neska hitzik atera gabe hurbildu zen ihes egin nahirik alferrikako bihurdurak egiten zituen lotuarengana, eta, gerrikoan zeraman kuia bat askaturik, urrikalgarriaren ezpain lehorretara eraman zuen ezteki.

Orduan, anartean horren zeken eta errea egona zen begi hartarik malko lodi bat amildu zen geldiro etsipenak luzaz zimurtutako aurpegi putrusean behera. Dohakabe hark isuritako lehena zen noski.

Edatea ahantzi zitzaion, hala ere. Buhamea muturtu egin zen haserre antzean, eta gero Quasimodoren aho hortzadunean ipini zuen kuia irribarrez. Zangada luzetan edan zuen. Erregarria zen egarri hura. Amaitutakoan, urrikalgarriak bere ezpain beltzak luzatu zituen, laguntzera etorritako esku ederra musukatze kotan. Baina neskak, menturaz ez baitzen mesfidantzarik gabea eta gogoan edukiko zuen bart arratseko saio zakarra, abere batek ausiki eginen diola uste duen haurraren aieru ikaratuan erretiratu zuen eskua.

Gor dohakabeak mintasunez eta ezin esan ahalako tristuraz beteriko behakoa egin zion orduan.

Halako neska eder, lirain, garbi, xarmangarri eta aldi beran ahula horren kartsuki etortzea miseria, ezainkeria eta zitalkeriaren sokorri, ikusgarri ederra izanzen zatekeen edonon. Pikota baten gainean, ikusgarri gorenena zen. Jendetza hura guztia liluratu egin zen, eta txaloka hasi zen oihu egiten zuela: Eguberri! Eguberri!”

Parisko Notre-Dame, VI. liburukia, 4. atala, «Malko bat ur tanta batengatik».